

Ahozkotasuna ardatz hartuta dator aurten Euskal Jaia Anoetara

Igandean egingo dute Euskal Jaia ekoizleen azoka erdigunean jarrita; ahozkotasunari lotutako ekimenak izango dira, bihar eta etzi // 6

Xarea indartzeko neurriak hartu ditu Ametsa elkarteak

Irurako Ametsa Pilota Elkartearen barruan dago xare eskola, eta teknifikazio talde bat jarri dute // 7

Zizurkilgo lan istripua salatzeke gaur elkarretaratzea egingo dute

Larunbateko ezbeharra salatzeke, gehiengo sindikalak deituta izango da elkarretaratzea, 13:00etan, Zizurkilgo Joxe Arregi plazan // 5

San Esteban eta Berazubi auzoak prest daude festa egiteko

Tolosako bi auzoek gaur hasiko dituzte kultur asteak; Berazubin igandea bitarte izango da eta San Estebanen aste osoan izango dira ekitaldiak // 2



Arantxa Iruretagoiena taldeko kidea, Araba etorbidean duten egoitzan. I.G.L.

Pobreziaren Aurkako Jardunaldiak lehen aldiz antolatu dituzte

Tolosako Zutani elkartasuna eta laguntza humanitarioko elkarteak, hilaren 16an hasiko diren ekitaldien bitartez, pobreziak izan ditzakeen hainbat aurpegi islatu nahi ditu // 4-5



ATARIKIDEAK		BESTEAK
KATILUA	8 EURO	10 EURO
BOLIGRAFOA + KOADERNOA	4 EURO	6 EURO
BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA	10 EURO	14 EURO

Berrikuntzaz bete dute kultur astea, San Estebanen

Gaur izango dira lehen hitzorduak, baina hurrengo asteburura bitarteko egitaraua izango dute auzoan

Erredakzioa

Hiru hamarkadak gaingiduta, laugarrenaren bila doa San Esteban auzoa, kultur astearekin. Gaur izango da lehen hitzordua eta, hurrengo asteburura bitarte-

ko egitaraua prestatu dute, ohi bezala.

Aurten, haur krosean parte hartzeko Sahararako materiala eraman beharko da, eta XXI. mendeko feminismoari buruzko hitzaldia ere txertatu dute.

SAN ESTEBAN AUZOKO XXXI. KULTUR ASTEA

Urriaren 11, osteguna

19:00. Pintxo-potea Hiru-Aldeta tabernan.

21:00. *Handia* filmaren ikustaldia auzoko lokalean, Tolosako Udalaren eskutik.

Urriaren 12a, ostirala

11:00. Tolosako XXXI. Herri Krosa.

Ondoren. IV. Txiki Krosa. Aurten ez dute dortsala ordaindu beharko, baina Saharar eskoletara bideratzeko materiala eraman beharko da, lasterketan parte hartu ahalizateko.

Urriaren 14a, igandea

09:30. Mendi ibilaldia antolatu du Ttonttor San Esteban Auzokide Elkartek.

Urriaren 18a, osteguna

19:30. Aiora Epelderen (Emagin) hitzaldia, auzo elkartearen *Feminismoaren oinarriak XXI. mendean*.

Urriaren 19a, ostirala

19:00. XVI. Patata tortila lehiaketa.

Ondoren. Ondoren, luntxa.

22:00. Antzerkia: *Un ciprés en un desierto* (Zurrunka teatroren eskutik)

Urriaren 20a, larunbata

10:30-18:30. *Black Market 2018* merkatu beltza auzoan, Box.Arekin elkarlanean.

15:00. 2x2 boleibol txapelketa ferialekuan, Toloboleik antolatuta.

16:30. Haur Jolasak eta Box.Akoekin margoketa tailerra.

18:00. Buruhandiak.

18:30. Txokolate jatea, batukada feministak girotua.

22:30. Kontzertuak: Potentor, SP eta Raglefant.

Urriaren 21a, igandea

09:00. Diana herriko txistulariekin.

10:00. Trikitilariak auzoko baserrietan.

10:30. 2x2 boleibol txapelketaren finalaurrekoak eta finala.

11:00. Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.

11:00. Radio Controleko kotxeen erakustaldiak Ttorreko aparkalekuan.

12:00. Auzoko txarangarekin kalejira.

14:00. Babarrun jatea.

Ondoren. Dantzaldia eta karaokea Joxe Mendizabalen eskutik. Atse-denaldian, toka txapelketa jokatu dute.

Hiru eguneko asteburua festan pasatuko dute Berazubi auzoan

Gaur hasiko dira Tolosako Berazubi auzoko festak, ohiko datei eutsiz; gastronomia, musika, eta kultura ariko dira egitaraua egunez egun josten

Itzea Urkizu Arsuaga

Urriaren 12aren bueltako egunak seinalatuak izaten dira Berazubi auzoan: auzoko festak. Joan den astean aurkeztu zituzten auzo elkarteak kideek, elkartearen egoitzan eta, urteroko moduan, aspertzeko betarik ez izateko moduko asteburu luzea prestatu dute.

Gaur bertan hasiko dira festak, 18:00etako txupinazoarekin eta, bihartik aurrera, gastronomiaren, kulturaren nahiz jolasen bitetik ospatuko dituzte jaiak.

Agustin Artola auzo elkarteak kideak azaldu du, toka txapelketak oso arrakastatsuak izan ohi direla, eta Tolosatik kanpokoek parte hartzen dutela. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaz galdetuta, azaldu du distantziak bereizten dituela modalitateak.

Igandera bitarte, beraz, benetak lapikoa izango da Berazubi.



Gaur, txupinazoaren ondoren buruhandiak irtengo dira. A. URKOLA

BERAZUBI AUZOKO FESTAK 2018, EGITARAUA

Urriaren 11, osteguna

18:00. Txupinazoa.

18:15. Buruhandiak auzoko kaleetan.

20:00. Tolosako Musika Bandaren kontzertua.

22:30. Alurr dantza taldearen emanaldia.

00:00. Joxe Mendizabal.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Kabina estetikoak. Irekita dagoen ile-apaindegi batean kabina estetiko bat eskaintzen da. Interesa duenak, deitu 638 44 56 42 telefonora.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Urriaren 12a, ostirala

09:00. Korpus Kristi elizan auzoko hildakoak oroitzeko meza.

11:00. Buruhandiak auzoko kaleetan.

12:00. Gizonezkoen Toka.

14:30. Herri bazkaria (norberak eramana).

16:45. Entzierro txikia paper eskola-tik zezen plazaraino.

17:00. Zezen plazan haurrentzako zezentxoak eta poney-ak.

19:00. Patata Tortila lehiaketa Tolosa C.F.-ko plazan.

19:00. Pintxo potea patata tortilarekin.

21:30. Herri Afaria (norberak eramana).

23:30. Karaokea.

Urriaren 13a, larunbata

10:30. Xake txapelketa.

12:00. Eurne Trancho Master-Chef-eko finalistaren gidaritzapean, haurrentzako sukaldaritza tailerra.

14:30. Sukaldaritza tailerreko parte

hartzaileentzako bazkaria (tailerrean prestatutakoa bazkalduko dute).

16:00. Mozorro lehiaketa.

16:30. Mozorroekin Photocall-a.

16:30. Haurrentzako jolasak.

17:30. Txokolate jatea.

19:30. Oasis Musikal Show Orkestraren lehenengo saioa.

20:45. Danborradako afaria.

22:15. Danborrada auzoko kaleetan.

23:45. Su artifizialak Berazubiko zubitik.

00:00. Oasis Musikal Show Orkestra.

Urriaren 14a, igandea

09:00. Tolosako Txistulariekin diana auzoko kaleetan zehar.

11:00. Europako Txapela jaurtiketa.

12:30. Emakumezkoen Toka.

14:30. Paella erraldoia.

17:30. Chuchin Ibañez.

19:30. Areto dantzak Ritmo de Luna taldearekin.

21:00. Txistorra jatea.

22:00. Arratoiaren erretzea.



Koruak hasi du ikasturtea eta abeslari bila dabil

Rebeka Calvo Ibarra

Ibarrako IK Kantu Abesbatzak urriaren 4an hasi zuen ikasturtea. Ostegunero biltzen dira Azkue auzoko gizarte zerbitzueta-ko lokalean, 19:30etik 21:00etara, eta ahots berriak erakarri nahi dituztela esan dute.

Iaz 21 pertsonen hartu zuten parte abesbatzan eta aurren taldea indartu nahi dutela diote, batez ere, gizonen ahotsak behar dituztelarik.

«Astean behin biltzen gara eta oso gustura aritzen gara. Presta-

tzen ditugun abestiak guztien artean hitzartzen ditugu eta gauza berriak egiten saiatzen gara. Parte hartu nahi dutenek baldintza bakarra bete behar

dute, abestea gustuko izatea», esan dute. Parte hartu nahi dutenek entseguetara joan behar dute, edo bestela 685 72 96 63 telefono zenbakira deitu.



Ibarrako abesbatzaren taldeko argazkia. ATARIA

Ekitaldi ugari Ikaztegietan, Euskaraldia dela eta

Erredakzioa

Euskaraldia geroz eta gertuago dago, eta hori dela eta ekitaldiak biderkatzen ari dira Tolosaldean. Jada herri bat baino gehiagotan egin dituzte Hamaikakoen aurkezpenak, eta tailerren bat edo beste ere egin dute herritarrei Belarriprest eta Ahobizi figurak zer diren azaltzeko. Hurrengo hitzorduak Ikaztegietan jarri dituzte; hilaren 17an Ttak antzerki taldeak Euskaraldiaren er-

tzak aztertuko ditu bakarrikzeta baten bidez, 20:00etan, udaletxean, eta azaroaren 9an Uemaren eskutik, formakuntza saio bat egongo da.

IZEN EMATEA

Ostatu tabernara jo behar da, eta bertan dago Euskaraldiaren buzoia. Hala ere, azaroaren 11n mahai jarriko dute plazan, eta bertan ere eman ahal izango da izena. Bestalde, 12:00etatik aurrera txakolin dastatzea egingo dute.

Berastegiko Udalak herri batzarra deitu du gaurko

BERASTEGI // Udalak herri batzarra egingo du gaur, osteguna, 21:00etan, pleno aretoan. Argazki Rallian izena emateko eguna ere gaur da. 20:00etarako joan behar da udal bulegoetara eta bertan jakinaraziko dute jorratu beharreko gaia. Analogikoan edo digitalean parte hartu daiteke eta behin izena emanda rallya hilaren 15ean bukatuko da. Irabazleak azaroaren 4an ezagutaraziko dituzte, Azoka Egunean, hain justu.

Bizi Nahi elkartearen irteera Amurriora, hilaren 28an

IBARRA // Bizi Nahi elkarteak Amurriora irteera antolatu du hilaren 28rako. 09:00etan aterako dira Ibarratik eta Gasteizen egingo dute lehen geldialdia. Amurrioko Ruperto jatetxean bazkaldu eta gero, Zornotzan geldituko dira. Izen ematea zabalik dago; bazkideek 25 euro ordaindu behar dituzte eta gainontzekoek 30.

KZ Guneko urriko doako ikastaroetan izena emateko aukera

BERASTEGI // Urriaren KZ Guneko doako ikastaroak egiteko aukera dago. Sare sozialak, ofimatika, APPak, google data edo wikiloc programak landuko dituzte. Informazio gehiagorako edo izena emateko: 943 02 36 25 edo tutor.berastegi@kzgunea.net.

Auzolana izango da beste behin, Azku Eguneko ardatza

Ibarrako Azkue auzoko eguna ospatuko dute urriaren 20an; bazkarirako txartelak Azkue okindegian erosi daitezke 10 eta 5 euroren truke

Rebeka Calvo Ibarra

2012. urtean ospatu zuten lehen aldiz Azku Eguna. Ibarrako auzo gazteena da eta eurek ere festa egun bat izan nahi zutela eta hasi ziren antolatzen. Helburua orduan eta gaur bera da, auzotarraren arteko harremanak egin eta estutzea.

Urtero egun bateko jaia egiten dute, goizetik iluntzera arte, eta beti egoten dira haurrentzako jolas kooperatiboak goizean, eta kontzerturen bat iluntzean. Aurtum Howdy taldeak eskainiko du kontzertua, 19:30etik aurrera. Howdy taldea Donostian sortu zuten eta folk zein roots musikaren inguruan aritzen direla diote. Euren bertsio errepertorioa folk, country, bluegrass... genero musikaletatik pasatzen da euren hitzetan, Bill Monroe, Doc Watson edo Johnny Cash klasikoe-tatik Old Crow Medicine Show edo The Tillers bezalako talde modernoetara iristen delarik.

Haur jolasak berriz, goizean izango dira, txupinazoaren ondorengo, eta 17:30ean Tor magoaren ikuskizuna ere egongo da. Egitarauko beste klasiko bat aperitif musikatua izaten da. DJ Eskatzia Libre izango du aurren,



Haurrek jolasak, emanaldiak eta musika izaten dituzte. R.C.

musika jartzeko ardura. Bazkarirako paella egingo dute eta txartelak Azkue okindegian erosi daitezke. Helduek 10 euro ordaindu behar dituzte eta 18 urte-tik beherakoek 5 euro. Norberak eraman beharko ditu platerak, mahai tresnak eta edalontziak.

Auzolana ere bada Azku Egune-ko ikur, eta guztia antolatzeaz gain, bildu ere horrela egingo dute. Horrela bukatuko dute egun guztiko jaia.

AZKU EGUNA

Urriak 20, larunbata

11:00. Txupinazioa Azkuko biribilgunean auzoko musikariek eta bu-ruhandiekin. Kalejiran joango dira Azkuko plazara eta ondoren, haur jolas kooperatiboak egingo dituzte Gaztezuoren laguntzarekin.

11:30. Toka eta pintxo potea.

12:30. Aperitif musikatua: DJ Eskatzia Libre.

14:00. Bazkaria.

16:00. Bingoa.

17:30. Tor magoaren ikuskizuna.

18:30. Asto-piñata.

19:30. Kontzertua: Howdy.

20:30. Zezen suzkoa. Ondoren, jai bukaera eta garbiketa auzolanean.

Pobreziaren aurpegi ugariak

Bi astez luzatuko diren Pobreziaren Aurkako Jardunaldiak antolatu ditu Zutani elkarteak; urriaren 16an izango da lehenengo ekitaldia

Imanol Garcia Landa Tolosa

Zutani elkartasuna eta laguntza humanitarioko elkarteak lehenengo aldiz antolatu ditu Pobreziaren Aurkako Jardunaldiak. «Pobreziak izan ditzakeen hainbat aurpegi islatu nahi izan ditugu», azaldu du Arantxa Iruretagoienak, elkartearen lehendakariak. «Elkartean elkarbanatu ditugu bakoitzaren kezka, eta egia da jardunaldian jorratuko diren gai horiek gizartean daudela».

Elkartea 2013an jarri zen martxan, eta bere egoitza Tolosako Araba etorbidean du. «Elkartea sortzeko batu gintuena elikagaien falta zegoela familietan izan zen», esan du Iruretagoienak. «Beti argi izan dugu erakundeen lana dela hori, baina betetzen ez denean ez dugu utziko jendea janaririk gabe. Oinarritzko beharra da, etxebizitza, osasuna, lana... bezala». Elikagaien banaketarekin hasi zirenean 60 familia zeuden eta gaur egun 220 dira elikagaiak jasotzen dituztenak. Astero-astero elkartera bi familia berri joaten direla dio Iruretagoienak.

Zutani elkarteak sortu zutenean elikagaiak banatzea izan bazen ere zeregin nagusia, beraien helburua ez dela soilik elikagaiak banatzea dio Iruretagoienak: «Gure nortasuna ez da asistentziala, ez dugu karitaterik egiten eta ezta limosna ematen ere. Saiatzen gara pobrezian bizi direnak gure ekintzetan parte hartzen, prestatzen eta ikasten. Gure estatutueta argi geratzen da pobreziaren eta eskusio sozialaren aurka aritu nahi dugula, solidarioak garela, prebentzioa ere sustatu behar dela, prestakuntza, sentsibilizazioa... Bestalde, genero eta interkulturalitate ikuspegitik elkarbizitza sustatzeko prozesu eta ekintzak bul-tzatu nahi ditugula».

Hasierako urteetan, baina, taldean gutxi zirela, eta ez zituztela ez baliabide fisiko ezta ekonomikoak ere azaldu du. «Elikagaiak banatzea izan da gure ekintza nagusia», esan du Iruretagoienak, eta gaineratu: «Urteen poderioz gertatu da jende berria



Pintxo Tour egitasmoa egin zuen aurreko larunbatean Zutani elkarteak Tolosako Trianguloa plazan. I.G.L.

gerturatzen hasi dela, talde solidario majo bat sortu dugula, nahiko egonkorra, eta horri esker gure estatutueta azaltzen diren helburuak zabaltzeko aukera eman digula. Adibidez, Pintxo Tour egitasmoa, tailerrak, ikastaroak eta beste zenbait jarduera sustatu ditugu».

Aurten, beraz, «aspaldiko go-goari jarraituz», Pobreziaren Aurkako Jardunaldiak antolatu dituzte bi astetan zehar, urriaren 17an Pobreziaren Aurkako Nazioarteko eguna dela probestuz. Zehazki, urriaren 16, 17, 18, 22 eta 23an izango dira ekitaldiak.

Jardunaldietarako gaiak aukeratzekoan, Iruretagoienak gogor ekarri du «dibertsitatea» dutela bai boluntarioen artean eta baita janaria jasotzera joaten direnen artean ere. «Bestalde, gai ezberdinak daude gizartean guri kezkatzen gaituztenak: migrazioa, emakumea, pobrezia, elikagaien banaketa egiteko modua duina den edo ez... Guk esaten dugu elkarte dinamiko bat garela, hau da, gure lana hausnartu egiten dugula».

Iruretagoienak gaineratu duenez, ez daude «beti eroso» egiten dutenarekin, eta zalantzan jartzen dute: «Arazo hau nolakoa

den, laguntzen ari garen, hona etortzen den jendea zergatik etortzen den, emakumearen egoera zein den, etxeko lanak egin eta bertan bizi diren langileak nola dauden, pentsiodunen egoera, haurren garapen osasuntsua... Horiek dira ditugun gaiak, eta lehenengo jardunaldiak antolatzeko, ikusi genuen polita izango zela gai ezberdinak tratatzea, eta horrela herritarren espektro handiago batera iristea». Hori horrela, jardunaldiak osatzen joan dira, hainbat gaietan adituak diren pertsonekin harremanetan jarri eta parte hartzera gonbidatuz.

HAUSNARKETARAKO GAIAK

Jardunaldiko ekitaldi guztiak Tolosako kultur etxean izango dira, leku ezberdinetan, eta 19:00etan hasiko dira. Migrazioa izango da jorratuko den gaietako bat. Lehenengo egunean Gorka Morenok *Migrazioa eta pobrezia* gaia jorratuko du. Migranteen eta pobreziaren inguruan datuak emango ditu. «Migrazioaren eta pobreziaren artean lotura ote dagoen eztabaida sortu nahi dugu», esan du Iruretagoienak.

Migrazioaren gaia beste egun batean ere jorratuko da. Urriaren

22an izango da hori, eta batetik *Las lagrimas de Africa* dokumentala ikusiko da. Bere egileak, Amparo Climentek, errefuxiatuek eta migranteek Marokon bizi duten egoera, -tartearen hesiak pasatzeko ahaleginak-, filmatu du dokumentalean. Egundorretan, Gerardo Carrere Irungo Harrera Sareako kideak ere, Irun eta Hendaia arteko muga igarotzeko migranteek bizi duten egoera azalduko du, eta horren aurrean Sareak egiten duen lanaren berri emango du.

Pobreziaren Aurkako Egunean, urriaren 17an, umore pixka bat sartu nahi izan dute, eta Virginia Imaz ariko da ipuin kontalaria. Egundorretan ere Donostiako Zero Pobrezia plataformaren berri emango du Jesus Ochoak, plataformaren funtzionamendua eta helburuak azalduz.

Urriaren 18an Gasteizko Despesa Solidaria Tabgha-ren berri emango du Fidel Molinak. «Hausnarketak egiten ari gara elikagaien banaketaren inguruan», esan du Iruretagoienak. «Ondo ari garen, gehiago inplikatu behar ditugun elikagaiak jasotzen ari direnak... Badaude beste esperientzia batzuk, eta nola funtzionatzen duten jakin

EGITARAUA

Ekitaldi guztiak Tolosako kultur etxean izango dira.

Urriak 16, asteartea

19:00. *Migrazioa eta pobrezia* hitzaldia, Gorka Moreno Ikuspegi Im-migrazioaren Euskal Behatoko zuzendariarekin.

Urriak 17, asteazkena

19:00. Donostiako Zero Pobrezia Plataformarekin solasaldia, Jesus Otxoa bertako kidearekin.

Ondoren. *Cuentos de la Tia Miseria* ipuin kontaketa, Virginia Imaz Oihualari Klown taldeko kidearekin.

Urriak 18, osteguna

19:00. *Despesa Solidaria Tabgha* (Gasteiz) hitzaldia, Fidel Molina Berakah taldeko koordinatzailearekin.

Urriak 22, astelehena

19:00. Amparo Climenten *Las lagrimas de Africa* dokumentala.

Ondoren, *La otra valla: de Irun a Hendaia* hitzaldia, Gerardo Carrere Irungo Harrera Sareako partaidea-rekin.

Urriak 23, asteartea

19:00. Mahai inguru: *Etxe barruko zaintza, pobrezia eta babesik eza*, Isabel Otxoarekin, EHUKo irakaslea eta Bizkaiko etxeko langileen elkar-teko aholkularia; eta *Alarguntza pentsioak: ageriko miseria*, Maite Bilbaoarekin, Fevi Euskadiko Emakume Alargunen Elkartearen Federazio-ko kidea eta CONFAVEN konfederazioaren lehendakaria.

nahi dugu, eta ikusi ea guk zer-bait aldatu dezakegun jendea gehiago inplikatzeko».

Azkeneko ekitaldia urriaren 23an izango da eta, batetik, Isabel Otxoa etxe barruko zaintzari buruz ariko da, eta Maite Bilbao alarguntza pentsioen inguruan. «Bi gai horiek elkarren artean lotura dute», azaldu du Iruretagoienak, «eta hor ere generoa landu nahi dugu, emakumeek bizi duten egoera ikusaraziz, eta pobreziaren feminizazioa benetakoa dela erakutsi».

Jardunaldiek ere balioko dute Zutani elkarteak egiten duen lana ezagutarazteko. Iruretagoienak dio ateak irekita dituztela boluntario gehiagorentzako, eta beraien nahia dela elkartearen taldea gero eta sendoagoa izatea, «lan asko baitago egiteko».

«Esan dezakegu migranteentzako beste hesi bat bezala dagoela Irunen»

I. Garcia Landa Tolosa

Gerardo Carrerek parte hartuko du Pobreziaren Aurkako Jardunaldietan. Urriaren 22an *La otra valla: de Irun a Hendaia* hitzaldia emango du. Carrere Irungo Harrera Sareako partaidea da eta SOS Arrazakeriako kidea.

Zergatik azaltzen da «beste hesia» izenburuan?

Hesia baino muga da. Benetako hesia hegoaldean dago, hemen muga dago, bestelakoa dena. Hemen, Irunen, gertatzen dena da hegoaldeetik etortzen diren migranteak, gehienak Europa aldera joan nahi dutenak, tope bat dutela Irunen, muga dagoelako. Beste aldean Frantziako polizia kontrolak ditu jendea ez pasatzeko. Beraz, inbutu moduko bat sortzen da, eta jendeak egunak pasatzen ditu muga pasatu nahian. Azkenean gehienak joan egiten dira, baina izaten da jendea itxaroten dagoena. Beraz, esan dezakegu beste hesi bat be-

zala dagoela. Eta horren inguruan sortu da Harrera Sarea.

Zer egiten du Harrera Sareak?

Migrante horiek dituzten beharrak betetzea. Uztaila bukaeran sortu zen Harrera Sarea. Irunen jendea zegoen kalean, eta ez zegoen baliabide publiko bat beraien harrera egiteko. Bazkari bat egin genuen udaletxearen aurrean, eta orduan erakundeek erantzun bat eman zuten, aterpetxe bat jarritz. Uztailetik hona beti egon da migranteen baliabide bat, baina egia da oso eskasa izan dela, edo errealitatearen atzetik joan direla. Orduan, behar horien inguruan sortu da Sarea.

Baliabide publikoak beti arau bereziak dituzte. Adibidez, jendeak hiru edo bost egun baino gehiago ezin du geratu, baliabidea bakarrik erabili dezakete azkeneko 30 egunetan Espainian sartu direnek, Poliziak ematen dien dokumentazio berezi bat behar dute, egunez ezin dute egon, ez dago arreta berezirik



Gerardo Carrere. ATARIA

adin txikikoentzat eta emakumeentzat... Beraz, erakundeek betetzen ez dituzten behar horiek Sareak betetzen ditu.

Nola antolatzen zarete?

Harrera zentroa Lakaxita Irungo Gaztetxean dago, eta Sarearen inguruan 150 pertsona inguru biltzen dira. Lan taldeak daude: arropa banatzen duena, otordua egiten dituen, goizez eta arratsaldean harrera egiten dietena migrante berriei... Niretzat azpimarratzeko ezaugarri bat du

Sareak: jende oso ezberdina elkartzen gara, baina oso lan polita eta praktikoa egiten ari gara denon artean.

Bestalde, Harrera Sarearen lana ez da bakarrik migranteei erantzun bat ematea. Garrantzitsua da Sarearen sentsibilizazio lana gizartearen, nolabait diskurtso xenofobo eta arrazistaren aurka egiteko. Jendea zuzenean inplikatzeko denon, errealitatea zuzenean ezagutzen duenean, pertsonak ezagutzen dituenen, beste ikuspuntu bat sortzen zaio. Eta ikusten dugu Sarearen inguruan dagoen jendea ere kutsatu egiten dela hortaz.

Zein egoera aurreikusten du zue aurrera begira?

Ikusten dugu erakundeek erantzun bat eman behar diotela egoera honi. Lakaxitan 30 pertsona inguru daude lo egiten, eta baliabide publikoak 60 ohe ditu, baina erdia normalean hutsa egoten da. Gure ustez ez da jasangarria egoera hori.

Elkarretaratzea egingo dute gaur, azken lan istripua salatzeke

ZIZURKIL // 46 urteko langilea zendu zen igandean, larunbatean uzta makina batek harrapatu ostean izandako zauri larrien ondorioz. Osalanek egindako txostenak, Zizurkil eta Asteasu artean larunbatean izandako ez-beharra lan istripua izan zela baieztatu zuen atzo. Ondorioz, gehiengo sindikalak elkarretaratzea egingo du gaur, 13:00etan, Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. Sindikatuek heriotzaren arrazoiak ikertzea eskatuko dute *Lan istripu gehiagorik ez, prekaritatea hiltzaile* lelopean egingo duten mobilizazioan. LAB sindikatuak jakinarazi duenez, Euskal Herrian aurtan 57 langile hil dira, horietako hiru lehen sektorean. Nekazaritza arrisku handiko sektorea dela nabarmendu du sindikatuak eta gehitu du «jardunaldi luzeak, irregularrak, zarata eta estres terminoa» nagusi izan ohi direla.

Gimp eta pintura ikastaroetan izena emateko aukera

IKAZTEGIETA // Gimp eta Ikaztegieta KZgunek ikastaroak antolatu ditu, aurrez aurrekoak nahiz urrunekoak. Gimp bidez argazkiak moldatzen ikasteko ikastaroa izango da, aurrez aurrekoa. Photoshop moduko programa da. Urriaren 15etik 24ra izango da ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara artean, kiroldegian ondoko KZgunean. Interesatuak, udaletxean edo KZguneko webgunean eman beharko dute izena. Urruneko ikastaroen eskaintza ere bertan topatu daiteke. Bestalde, udaletxeko erabilera anitzeko gelan pintura ikastaroa egingo dute aurtan ere. Astelehenetan izango dira saioan, 18:30etik 20:00etara. Udaletxean eman beharko da izena.

«Etxeko langileen egoeraz zein zaintzarik jasotzen ez dutenez hitz egin behar da»

I. Garcia Landa Tolosa

Isabel Otxoak *Etxe barruko zaintza. Pobrezia eta babesik eza* hitzaldia emango du urriaren 23an, Pobreziaren Aurkako Jardunaldietan. Otxoa EHUko irakaslea da eta Bizkaiko etxeko langileen elkarteko aholkularia.

Zer azalduko duzu hitzaldian?

Alde batetik zein den etxeko langileen egoera, etxe barruko zaintzan, baina baita oso ezaguna ez den beste kontu bat ere aipatzea: emakume asko daudela beraien etxeetan zaintza beharrean, eta hori ez dagoela ondo babestuta. Erkidegoan, menpekotasuna duten pertsonen artean kopuru handi batek ez du inongo zerbitzurik. Gehienetan emakumeak dira eta bakarrik bizi direnak. Ia 20.000 emakume daude ez lagunen ez familiakoen ez zerbitzu publikoen edo pribatuen arretarik gabe.

Zaintzari buruz hitz egiterakoan, askotan aipamena egiten da eta egia da, etxeko langileen ego-

era ez dela ona, familiako zaintzaileen egoera ez dela ona, baina nik uste dut ozen esan behar dela gainera jende askok ez duela inongo laguntzarik.

Ze nabarmenduko zenuke zaintzaileen egoeraren inguruan?

Etxeko langileak direnean eta etxean bertan lo egiten dutenean, kontua da lanaldi luzeegiak dituztela. Luzezia esaten dudanean da 80 ordutik gorako lanaldiak. Kontua da hori ez dagoela inolako kontrolik eta ehuneko handi batek legezkoak izango liratekeen 60 orduak baino gehiago egiten duela lan asteen. Oso gutxitan ikusten ditugu legea betetzen duten pertsonak. Orain gutxi aholkularitzatik pasa da 91 ordu egiten dituen asteen. 1.700 euro ordaintzen diote. Esango duzu, hori soldata nahiko duina da, baina horren trukean ez du inongo atsedeenik hartzen asteen zehar. Etxeko langile askok eta askok ez dute atsedeenik hartzen.

Egoera horien aurrean kexa-

tzeko, baldintza duinak eskatzeko, aukera badute?

Izan behar lituzketen baldintzen berri ematean, langileek batzuetan erantzuten dizute uste dutela abusatzen ari direla, baina paperak eman zizkiotelako horren eskertua zegoenez... Paperik gabe etortzen den jendeak zailtasun handia du horiek lortzeko. Orduan, lan baldintzak bigarren mailakoak bihurtzen dira. Hori horrela, paperak lortu ahal izateko jendeak lan baldintza oso kaxkarrak jasaten ditu. Eta hori da atzeritarren legearen kontua. Gainera, paperak lortzerako etxe horretan seguruenik bi edo hiru edo lau urte emango ditu lanean... Denbora horretan egon dira gizarte segurantzaren alta eman gabe. Behin paperak lortuta, esker onez, denbora tarte batez etxean gelditzen dira paperak lortu dituztelako. Eta hori da gaur egun helduak zaintzeko dagoen sistema. Izan ere, etxeko langile moduan lantokian lo egiten duten ia guztiek atzerriko jatorria dute.



Isabel Otxoa. ATARIA



zozketak



Atarikideentzat liburu eta DVD bat daukagu

'La fuerza de la fragilidad' disko, liburu eta DVDa zozketatzen dugu

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

Ahozkotasuna landuko dute aurtengo Euskal Jaian

Anoetan igandean egingo da jai eguna inguruko ekoizleen azoka erdigunean jarrita, baina aurrez, ekimenak egiten ari dira ahozkotasuna ardatz hartuta

Jon Miranda Anoeta

Bere tokia irabazia du Euskal Jaiak Anoetan. Hamaikagarren edizioa izango da aurtengoa eta arrakastaren oinarrian herritarren parte hartzea dago. Hamabost bat lagunez osatutako batzordea aritzen da ia urte osoan jaiak prestatzen eta igandeko eguna antolatzen ehun lagun inguruk jardungo du, auzolanean, borondatez. «Ez da udaletik ateratzen den jai bat, udala parte da, baina herritarren artean osatzen dugu egitaraua», esan dute batzordeko kideek. Urtero Euskal Jaiak gai baten bueltan antolatzeak ere mesede egiten duela aipatu dute, «jende ezberdinengana jotzea eskatzen duelako eta bizi handia ematen diolako egunari». Aurtengoa, ahozkotasunaren inguruko lanketa egiten dute.

Hizkuntzaren transmisioan bakarrik ez, kultura eta lehen sektorearekin lotutako jakintzen transmisioan ahozkotasunak erabateko garrantzia izan du. Horregatik erabaki dute aurtengoa egin duten lanketarako ardatz hartzea: «Euskal Herriaren nazio

eta herri izaera aldarrikatzeko antolatzen dugu jaiak, baina ez dugu folklorismoan erori nahi, edukiz bete, herriko baserriak plazara atera, erdigunera ekarri eta sektorea ikustarazteko baliatzen dugu eguna».

Azkeneko bizpahiru urteetan Euskal Jai egunaz harago eraman dute egitaraua eta aurtengoa ere ahozkotasunaren ingurukoak antolatu dituzte. Pello Errota bertso sariketaren kanporaketa saioa izan zen aurreko ostiralean Mikelasagasti auditorioan eta *Mundu bat ahoz aho* dokumentala eta solasaldia izan ziren astelehenean. Bihar, Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik *Bakean dagoenari bakean utzi* bakarriketa eskainiko dute Zimenterioan eta 2zio taldeak kontzertua eskainiko du plazan, larunbat arratsaldean.

Aurreko urteetan, Euskal Jaiaren barruan aukeratutako gaia-ekin erakustoki bat atondu izan dute plazaren erdian. Aurtengoa, ordea, ahozkotasuna gai «immateriala» izanik, eguerdian egiten den ekitaldia baliatuko dute bertsoa, kantua eta kontularitza ba-

liatuta, ahozko ondarearen transmisioa irudikatuzko: «Herritarrek antzeztuko dute eta lau hizlari ariko dira, Anoetak urte hauetan guztietan izan duen bilakaera irudikatuz». Bertsoak ere izango du parte igandeko egitarauan, 18:00etan Bidegain etxean ariko baitira Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Iker Zubeldia eta Anjel Mari Peñagarikano. «Esan dezakegun bakarra da ez dela ohiko bertso saio bat izango, berezi joango da».

BERTAKOA KONTSUMITU

Igandean 10:00etan zabalduko da baserriaren eta artisauen azoka eta 25 postu baino gehiago izango dira Anoetako plazan. Herriko Sarobe, Barrundi, Argindegi eta Etxeberri baserriek eta Anoetako Otero pilotagileak izango dute azokan tokia, Gipuzkoa eta Nafarroatik etorritako beste hainbat artisau eta ekoizleekin batera. «Gure azoka txikia da eta helburua ez da ahalik eta handiena izatea, bizitasuna eta ekoizleentzat salmentak bermatzea da gure asmoa». Horretarako, egunotan, herriko saltokie-

tan erosketak egin dituztenek, zozketa batean parte hartzeko aukera izan dute. Irabazleek, igandeko azokan, Anoetako ekoizleen postuetan 15 euro gastatzeko bonuak eskuratuko dituzte.

Herriko eragileak ere presente egongo dira Euskal Jaian. Anoetako Herri Ikastolakoek ikas bidaierako pintxo salmenta egingo dute eta *Ezkutuko haziak* proiektuaren bitartez, basoaren zati bat erakutsiko dute plazan. Umeei gaiaren inguruko tailer bat egiteko asmoa dute igandeko goizean. Herriko Anitz dantza taldeak ere materiala jarriko du salgai eta jatorri ezberdinetako Guretzako emakume taldeko anoetarrek, gozogintza postua izango dute azokan.

Eguerdian egingo den herri bazkarian ere, «koherentziari» eutsi nahi izan diotela aitortu dute Euskal Jai batzordeko kideek: «Kontsumitzen dena ahalik eta gertukoena izan dadin saiatzen gara, herriko baserriaren produktuak eta Euskal Herriko ekoizleekin osatzen dugu menua eta pixkanaka, elikadura bu-



Euskal jai batzordeko kideak aurtengo festa prestatzeko bilera batean. J.M.

XI. EUSKAL JAI ANOETAN

Urriak 12, ostirala

22:30. *Bakean dagoenari bakean utzi* bakarriketa Zimenterioan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraik eskutik.

Urriak 13, larunbata

19:00. 2zio taldearen kontzertua plazan.

Urriak 14, igandea

Euskal Jai Eguna

09:30. Herriko txistularien kalejira.

10:00 – 14:00. Baserriaren eta artisauen azoka.

12:00. Ekitaldi antzeztuta: Anoetaren historia.

Jarraian. Ardo dastaketa.

14:00. Herri bazkaria.

18:00. Hitz neurtuan jolas bertso saioa: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Iker Zubeldia eta Anjel Mari Peñagarikano.

Ondoren. Kupela taldearen erromeria eta Anoetako talogileak.



rujabetza deitzen zaion horretatik geroz eta gertuago gaude».

Igandeko jai eguna borobiltzeko, bertso saioaren ostean Kupela taldeak erromeria eskainiko du eta Anoetako talogileek egingo dako taloez gozatzeko aukera izango da. Antolakuntzak baserriarekin jantzita joateko eta erosketak poltsa eramateko deia luzatu die Euskal Jai gerturatzeko asmoa duten herritarrei.

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Xarearen etorkizuna bermatu nahian

Irurako xare eskolan teknifikazio talde bat jarri dute martxan 12-13 urteko gaztetxoekin; horrez gain, Iparraldeko Ligan parte hartzeko aukera izango dute

Asier Imaz Irura

Irurako Ametsa Pilota Elkartearen barruan xare eskola dago. Denboraldi berria aldaketekin hasi du. Etorkizuna bermatze aldera hartu dituzte neurriak, izan ere, adin batetik aurrera gaztetxoek xarea albo batera uzten zuten. Arazo horren jakitun, zubiak eraikitze teknifikazio talde bat jarri dute martxan 12-13 urteko gaztetxoekin.

«Aurten antolaketa pixka bat aldatzea erabaki dugu», azaltzen dute eskolako kideek. «Mailaketa moduko batzuk egin ditugu joko mailaren arabera. Horrela, 13-14 urtetik aurrera sortzen zen hutsunea ekidin nahi dugu». Gaztetxoek beste kirol baterako jauzia egiten zuten adin horretan, xarea albo batera utziz. «Ilusio edo motibazio falta horri aurre egiteko izan da berrantolaketak, eta Iparraldeko Ligan jokatzeko aukera izango dute hemendik aurrera. Aurten hiru talde osatu ditugu ligan aritzeko. Iparraldera joan eta xare partidak jokatzeko nahi dugu bertako pilotarien aurka, ilusioa pizteko helburuarekin», diote Ametsakoek.



Irurako haurrak herriko festetan xarean jokatzeko. IRATISAIAR

Iparraldeko Liga urrian hasi zen, eta hiru hilabeteren ondoren abenduaren 22an amaituko da. Ondoren Gipuzkoako Txapelketa, Euskal Herrikoa eta GRAVNI izango dituzte, besteak beste. Ligan parte hartzen ez duten pilotariek urteroko txapelketa horietan parte hartuko dute, eta Iparraldeko elkarteekin egiten dituzten topaketetan. Partidak, beraz, guztientzat egongo direla diote Ametsako kide irurarrak.

Aurten, 8 urtetik aurrerako 60 umerekin ari dira lanean xare es-

XARE PARTIDAK

Irura, igandea, 10:00etan
Lau partida

1. Urruñarrak 1 / Ametsa 3
2. Ametsa 2 / Urruñarrak 1
3. Ametsa 1 / Amikuze 2
4. Amikuze 2 / Ametsa 2

kolan. Horietatik 15 neskak dira. Plangintza berria aurrera eramateko zortzi irakasleko taldea osatu dute. Astelehen, asteazken, ostegun eta ostiraletan egiten dituzte entrenamenduak Irurako Ametsa Trinketan.

Futbol zelaia edo igerilekua?



Aulkitik

Aiora Galarza

Tolosa CF, Euskal Liga

Aste hasieran larunbateko afariko kontuak denon ahotan. Martija eta Eider konplize eta June adar jozteen jo mugan. Irabazteak ematen duen poza eta motibazioa nabari eta nola ez Imanolen ariketa taktikoak eta Iratzen estrategia jokaldiak ohi moduan.

Igande arratsaldea eta eguraldi tristea, aspaldian gaizki ohituta genbiltzan arren iritsi zen xira, jertse eta kamiseta termikoak ateratzeko garaia. Oiartzunera iritsi eta denon ahotan komentario bera, futbol zelaia edo igerile-

kua? Ez zirudien partida jokatzeko moduan zegoenik zelaia...

Partida aurretik aldagelan ohi-koaz gain beste porra bat, zein izango da partida hasieran lurrean barrena plisti-plasta ibiltzen lehena? Bada, gehienei zelaia zapaltzeko aukerarik utzi gabe beroketan lehen baloia kontrolatzen hasi eta halaxe estreinatu zen Nai... Ez dut uste hau zenik irabazi nahi zuen apustua: jaja...

Lehen zatia baloia lurretik batetik bestera mugitzeko arazoak zirela eta nahiko trabatua izan zen. Baloi luze asko eta aukera gutxi. Banakoarekin atsedendira eta gehiago ginenaren sentsazioa.

Bigarren zatian ateri aldia eta gure pitxitxia zelaira, horrela konturatzerako bata bestearen atzetik hiru gol. Bukaeran ondo borrokatu ondoren 1-4 eta hiru puntuak etxera. Eguraldiak laguntzen ez zuen arren hurbildu ziren zaleei eskerrak eman beste behin eta hurrengo partidaren pentsatzera. Aupa Tolosa!

TAKE Redline Mekanikak ez du ondo hasi denboraldia

SASKIBALOIA // Lehen Mailako saskibaloi denboraldia joan den asteburuan hasi zen. TAKE Redline Mekanika taldeak etxetik kanpo jokatu zuen Tabirako Bake taldearen aurka. Hirugarren laurdenean erabaki zen partida. Azken emaitza 74-50ekoa izan zen. Hurrengo partida igandean jokatu dute Usabalen, 11:20an, BKL taldearen aurka.

Tolobolei Bidebidek garaipenarekin hasi du liga

BOLEIBOLA // Igandean hasi zen Tolobolei Bidebiderentzat Bigarren Mailako ibilbidea. Lehen jardunaldia etxean jokatu zuen eta 3-1 irabazi zion Navarvolei taldeari. Garaipen horrekin sailkapenean seigarren daude eskualdekoak. Bigarren jardunaldia Universidad De Navarra taldearen aurka jokatu dute Iruñean, igandean, 12:00etatik aurrera.



AMAITU DA KOPAKO AMETSA

Lauburu Ibarak 1-2 galdu zuen asteartean Kopako kanporaketa, Rivas Futsal taldearen aurka. Partidako lehen gola kanpokoek sartu zuten, baina hurrengo jokaldian, Andoni Agirrezabalak partida berdintzea lortu zuen. Harmailak lepo bete ziren maila bat goragoko taldearen aurkako lehia ikusteko, eta azkenean kanpotarrak nagusitu ziren. A. IMAZ

ZUZENEAN

ALTUNA III
Vs
OLAIZOLA II

Urriak 15, astelehena,
zuzeneko irratsaioa
Tolosako Beotibar
pilotalekutik.
(Jokatuko balitz)

Lau t'erdiko Eusko Label Txapelketa

ataria
irratia 107.6 fm
www.ataria.eus



OSTEGUNA, 2018KO URRIAK 11
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

OSTEGUNA 11

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Lurgatz talde feministak Villabonako Udalaririk lokal eskaera egin eta ezezkioa jaso izana salatu du. Emakume oro bilera honetara deitu dute, 18:30ean, Errebotte plazan.

Amezketeta. Amestu Amezketa, 18:00etan, kultur etxean. Deliberazio saioa izango da. Irizpide, helburu eta erabaki nagusiak hartzeko garaia da. «Turismoa Amezketa? Etxebizitza berririk? Eskola nora? Landagunea berpiztu? Ekonomia? Ekipamendu berriak?...».

Berastegi. Herri batzarra egingo dute udaletxeko pleno aretoan, 21:00etan.

Tolosa. San Esteban auzoko XXXI. Kultur Astea. 19:00etan Pintxo-potea Hiru-Aldeta tabernan. 21:00etan, *Handia* filmaren ikustaldia auzoko lokalean, Tolosako Udalariren eskutik.

Tolosa. Berazubi auzoko festak: 18:00. Txupinazoa. 18:15. Buruhandiak auzoko kaleetan. 20:00. Tolosako Musika Bandaren Kontzertua. 22:30. Alurr dantza taldea. 00:00. Joxe Mendizabal.

Tolosa. XXV. Kultur Astea La Jara elkartean, 19:00etan, inaugurazioa eta 19:30ean, pintxo potea egingo dute.

Tolosa. *Western* filma zine forumean, Leidorren. Jatorrizko bertsioan, 19:15ean eta 21:45ean.

Tolosa. *La teta de Janet* ikuskizuna izango da Ertza konpainiaren eskutik, Topic aretoan, 20:00etan. Helbidei zuzendutako saioa da.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa.
Lejeune, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefona: 943 67 32 74.
TOLOSA. Gauekoa.
Morant, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefona: 943 67 38 49.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzea-rekin eguraldia, solasaldi politikoa Martxelo Otamendi eta Joseba Bergaretxerekin. Quark zientzia atala, Karin Van Der Worp-ekin eleaniztasuna, azokaren tartea eta Karlos Linazasoro, *Kale kantoitik*.

11:00-12:00. Hamaiketako.

Alegialdeko albisteak.

16:00-18:00. Zebrabidea. Arrosa sarearen magazina.

18:00-20:00. Goizeko saioek utzitako onena.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

16:30. Plazako aulkitik.

17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. Ikusi Irratia.

23:00. Halterofilia txapelketa.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Eguraldia nahastu egingo da. Goizean eta eguerdira bitarte, giro nahiko lasaia izango dugu, nahiz eta zerua hodeitsu agertu. Gainera, hego haizea ibiliko da eta giro nahiko goxoa izango dugu, tenperaturak bizpauru gradu behera egin arren. Maximoak eguerdian 20-22 gradutan kokatuko dira. Eguerditik aurrera haizeak mendebal ipar-mendebaldera egingo du, eta fronte hotz bat sartu eta euritara joko du. Iluntze aldera arte euri zaparrada mardul xamarak izango dira. Hala ere, frontea azkar batean pasa eta gau parterako atertu eta ostarteren bat edo beste irekiko da.



Bihar. Giro eguzkitsua bueltan izango dugu berriz ere. Egun guztian hego-haizeak joko du, bizi xamar eta horrekin tenperaturak ostegunean galdutakoa berreskuratuko du, eguneko erdiko orduetan 23-25 graduak harrapatuz. Zeruari dagokionez aitzakiarik ez. Egun osoan zehar goi-hodei batzuk ikusiko ditugu, zeruari kolore zurixka emanez, baina inolako ondorioz gabe. Beraz, eguzkia jaun eta jabe izango da.

Lazkoz, Lizaso, Gaztelumendi eta Azpiroz, finalera

Anoetako Mikelasagasti aretoan izan zen sariketako bigarren kanporaketa. Lazkoz eta Gaztelumendi izan ziren puntu gehien bildu zituztenak. Finala, Asteasun jokatu da hilaren 20an.

Erredakzioa

Anoetako Mikelasagasti aretoan izan zen I. Pello Errota Sariketako bigarren kanporaketa. Eneko Lazkoz etxarri-aranaztarra eta Unai Gaztelumendi aňorgarra izan ziren puntu gehien bildu zituztenak.

60 lagunetik gora izan ziren Anoetako areto ederra goxatu zutenak. Eta haien aurrean Imanol Artola *felix*-en esanera aritu ziren Eneritz Artetxe, Unai Gaztelumendi, Oihana Bartra, Aimar Karrika, Eneko Lazkoz eta Txomin Azpiroz herritarra.

Azpmarratzekoa izan zen zortziko handian saioari eman zioten hasiera, bertsoaldi bikainak osatu zituzten. Zortziko txikian ez zuten handiko distirarik erakutsi, baina puntu erantzunetan denek asmatu zuten eta erantzun gogoangarri bat baino gehiago izan ziren tartean.



Anoetako kanporaketan, bertsolariak eta gai jartzailea. ATARIA


Sei puntuko motzak dakartzan zailtasunei ondo eutsi zieten orokorrean. Kartzelako lanean Artetxe eta Bartra lanari agur esateko trasteak jasotzen ari diren langileak izan ziren, Azpiroz eta Karrika ikasketak amaitu ondoren noraezean dauden gazteak, eta Gaztelumendi eta Lazkoz parranda batean ligatu ondoren beste baten ohean daudela bikotekidearen deia jaso dutenak.

Maila altuko kanporaketa izan zen ostiralekoa, eta bertsolariek

lanak amaitu ostean erabakita geratu zen I. Pello Errota Sariketako finalean abestuko duen laukotea: Beñat Lizaso, Asier Azpiroz, Eneko Lazkoz eta Unai Gaztelumendi.

Finala bertso-afari formatuan izango da urriaren 20an Asteasuko Iturriondo jatetxean. Txartelak 20 euroan salgai daude Iturriondon bertan, eta bertaratu ezin duenak erreserba egin dezake harituz.bzt@gmail.com helbidera idatzita.

ZORION AGURRAK



Zorionak loritz

Gaur lau urte betetzen dituzu. Muxu potolo bat zuretzako amona eta Juneren partetik, merendola baten zain gelditzen gara!